

COMARCA EZKERRALDEA-ENKARTERRI

RESOLUCIÓN 165/2014, de 1 de septiembre, del Director Gerente de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri, por la que se convoca la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Jefe de Unidad de Atención Primaria de Portugalete-Repelega en la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Encontrándose vacante el puesto de Jefe/a de Unidad de Atención Primaria de Portugalete-Repelega en la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

BASES:**1.- Requisitos de participación.**

Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a).- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional A1/B1

b).- Estar en posesión de una de las siguientes titulaciones:

b.1.- Licenciatura en Medicina y Cirugía, con la especialidad en Medicina Familiar y Comunitaria o alguno de los títulos, certificados o diplomas establecidos para el ejercicio de las funciones de Médico de Medicina General, de conformidad con lo previsto en el Anexo I del Decreto 186/2005, de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza, o bien con la especialidad en Pediatría.

b.2.- Diplomatura Universitaria en Enfermería.

c).- Perfil lingüístico.- Perfil lingüístico 2, sin fecha de preceptividad

d).- Experiencia profesional mínima de 4 años de experiencia en el desempeño de tareas propias de los Grupos A1/B1.

2.- Méritos a considerar:

Se valorará la Memoria-Proyecto de Gestión de la Unidad de Atención Primaria de Portugalete-Repelega.

3.- Conocimientos de euskera.

Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

4.- Plazo y presentación de solicitudes.

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri (calle Arrontegi, 12. 48901 Barakaldo) de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de Personal de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri (calle Arrontegi, 12. 48901 Barakaldo). La documentación deberá tener la siguiente forma:

- a) Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- b) Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- c) Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos
- d) Memoria-Proyecto de la Unidad de Atención Primaria

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

5.- Comisión de Valoración.

Se constituirá una Comisión para la valoración de las solicitudes presentadas. Efectuada la valoración de los aspirantes, y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. El tribunal podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Se levantará acta de cada sesión de la Comisión. En la misma constarán los aspirantes presentados así como los motivos tenidos en cuenta para la asignación del puesto a uno de ellos o, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

6.- Procedimiento de selección.

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

Efectuada la valoración de los aspirantes, y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar la oportuna asignación de funciones. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.



7.- Resolución que pone fin al procedimiento.

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierto) se llevará a cabo mediante Resolución del Director Gerente de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.


Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

8.- Recursos contra la presente resolución.

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Barakaldo, a 1 de septiembre de 2014.

El Director Gerente de la Comarca Ezkerraldea-Enkarterri
JESÚS M^a LARRAÑAGA GARITANO





EZKERRALDEA-ENKARTERRI ESKUALDEA

165/2014 EBAZPENA, irailaren 1ekoa, Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerentearena, Lehen Mailako Arretaren Unitateko buru izateko lanpostu baterako deialdia egitekoa, izendapen askearen bidez, Portugalete-Errepelegako osasun-zentroan, Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan.

Hutsik dagoenez Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko Portugalete-Errepelegako Lehen Mailako Arretaren Unitateko buru izateko lanpostua, Kudeaketako Zuzendaritza honek erabaki du lanpostu hori izendapen aske bidez betetzeko deialdi publiko bat iragartzea, honako hauek betez: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko arau komunetan hirugarrenak ezarritakoa, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritakoa, eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoa. Lanpostua eskuratzeko, honako hauek bete beharko dira:

OINARRIAK:

1.- Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da honako baldintza hauek betetzen direla frogatzea:

a).- Estatutupeko langilea, funtzionarioa edo langile finkoa izatea Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, eta lanpostu bat jabetzan edukitzea A1/B1 lanbide-taldean.

b).- Honako titulu hauetakoren bat edukitzea:

b.1.- Medikuntza eta Kirurgiako lizentzia, familia eta komunitateko medikuntzako espezialitatearekin edota Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko I. eranskinean ezarritakoaren arabera medikuntza orokorreko medikuaren eginkizunak betetzeko balio duen titulu, egiaztigiri edo diplomaren batekin, edo, bestela, pediatriako espezialitatearekin.

b.2.- Erizaintzako unibertsitate-diplomatura.

c).- Hizkuntza-eskakizuna.- 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

d).- 4 urteko esperientzia gutxienez ere, A1/B1 taldeetako zereginetan.

2.- Kontuan hartuko diren merezimenduak:

Baloratu egingo da Portugalete-Errepelegako Lehen Mailako Arretaren Unitatea Kudeatzeko Memoria-Proiektua.

3.- Euskara jakitea.

Euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Interesdunek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko Pertsonaleko Zuzendaritzan (Arrontegi kalea, 12. 48901 Barakaldo) aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, Ebazpen hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Bestalde, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako moduan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin bete eta dokumentatutako curriculumarekin batera bidali beharko dute Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Arrontegi kalea, 12. 48901 Barakaldo). Honako hauek sartuko dira dokumentazioaren barnean:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario-izendapena edo estatutupeko langile izendapena jaso izanaren fotokopia konpultsatua, edo, hala badagokio, lan-kontratudun langile finko izatea egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzen direla frogatzen duten agirien fotokopia konpultsatuak.
- d) Lehen Mailako Arretaren Unitateko Memoria-Proiektua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazitako moduan egiaztatzea erakundearen barruan curriculumen aplikazio informatikoan behar bezala baliozkotuta ditugun datuak, baina hautagaiak eskabidean idatzi beharko du egoera hori.

5.- Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da, aurkeztutako eskabideak baloratzeko. Behin hautagaiak baloratutakoan, eta balorazioak ontzat emandakoan, dagokion izendapena gauzatzeko proposamen bat egingo da. Epaimahaiak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, arrazoitutako txosten bat egin ondoren, baldin eta hautagaiek ez badituzte betetzen eskatutako baldintzak.

Akta bat jasoko da Batzordearen saio bakoitzean. Akta horretan, aurkeztu diren hautagaiak jasoko dira, eta adieraziko da zer arrazoi hartu diren kontuan lanpostua haietako bati esleitzeko edo, hala badagokio, lanpostua hutsik geratzeko dela erabakitzeko.

6.- Aukeraketa-prozedura.

Ez dira inolaz ere kontuan hartuko deialdiaren iragarkia EHAAr argitaratzen den datan eskuratuta ez dauden merezimenduak, ez eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala arrazoitzen eta egiaztatzen ez direnak ere.

Behin hautagaiak baloratutakoan, eta balorazioak ontzat emandakoan, dagokion funtzio-esleipena gauzatzeko proposamen bat egingo da. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, arrazoitutako txosten bat egin ondoren, baldin eta hautagaiek ez badituzte betetzen eskatutako baldintzak.



7.- Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Hemen hasitako prozedura (lanpostua esleitzea edo lanpostua hutsik uztea erabakitzea) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerentearen ebazpen bidez amaituko da. Ebazpen hori intraneten eta Osakidetzaaren web orri korporatiboan argitaratuko da. Horrez gain, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek iragarkia EHAA-n argitaratzen den datatik aurrera izango ditu ondorioak, besterik xedatzen ez bada behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekursoak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekursoa jarri ahal izango da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Barakaldon, 2014ko irailaren 1ean.

Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdeko zuzendari gerentea
JESÚS M^a LARRAÑAGA GARITANO

